



LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA

Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza
Garraio Azpiegituren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Viceconsejería de Infraestructuras y Transportes
Dirección de Infraestructuras del Transporte

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 18koa, Garraio Azpiegituren Zuzendariarena, zeinaren bidez ontzat ematen da "Bilbo-Donostia lineako Eibar-Azitain tartea estaltzeko eraikuntza proiektua".

RESOLUCIÓN del 18 de noviembre de 2021 de la Directora de Infraestructuras del Transporte, por la que se aprueba el "Proyecto constructivo de cubrición del tramo Eibar-Azitain de la línea férrea Bilbao-Donostia".

2001. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak plan bat onartu zuen, "EuskoTren XXI Plan Estrategikoa" izenekoa, Euskadin garraio aldetik dauden premiak betetzeko eta trenaren erabilera sustatzeko. Haren ezaugarria da lurraldeak eta herriguneak lotzen dituela eta modua ematen duela ingurumena gehiago errespetatuta era harmoniatsuan garatzeko.

En el año 2001 el Consejo de Gobierno del País Vasco aprobó el "Plan Estratégico EuskoTren XXI", llamado a satisfacer las necesidades y fomentar el uso del transporte ferroviario en Euskadi, y que se caracteriza por impulsar la integración y relación de los territorios y núcleos de población posibilitando un desarrollo más armónico y respetuoso con el medio ambiente.

Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailak trenaren arloan prestatu- riko plan estrategikoarekin, asmoa da bidaiari- eta salgai-kopurua handitzea. Bidaiarien kasuan, aldiriko zerbitzuen eskaintza eta kalitatea handitzearekin, geltokien eskuragarritasuna hobetuta eta trenen maiztasuna handitu nahi dute. Salgaien kasuan, berriz, trafikoa indartzea da asmoa, bikoizketak eta gurutzaketak eginda, eta hala trafiko mistorako sarearen funtzionaltasuna handitzea.

El planteamiento estratégico de la actuación ferroviaria planteado por el Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco, se dirige a aumentar el número de pasajeros y mercancías transportadas. En el primer caso, a base de aumentar la oferta y la calidad de los servicios de cercanías, mejorando la accesibilidad de las estaciones y aumentando las frecuencias de trenes. En el caso de las mercancías, se pretende potenciar el tráfico incorporando desdoblamientos y cruzamientos para incrementar la funcionalidad de la red en cuanto al tráfico mixto.

EuskoTrenen sarean trafiko handiena duen linea Bilbo-Donostiakoa da; bide elektrifikatu bakarrekoa da, eta gehienbat aldirietako zerbitzua emateko erabiltzen da, ibilbide luzeko desplazamenduekin eta salgaien garraioarekin koordinatuta. Aldirietako zerbitzuen artean, nabarmentzekoa da Ermua-Eibarrekoa, 3.000 bidaiaririk gora izaten baititu egunero.

La línea de mayor tráfico de la red de EuskoTren es la línea Bilbao-Donostia, de vía única electrificada, cuya explotación predominante la representan los servicios de cercanías, que se coordinan con los desplazamientos de largo recorrido y el transporte de mercancías. Entre los servicios de cercanías hay que destacar el ofrecido entre Ermua-Eibar que cuenta con más de 3.000 viajeros diarios.

Eibarko udalerrian, zenbait jarduera eginak izan dira tren-zerbitzua hobetuz hiriaren integrazioa handitzeko; horretarako, bidea bikoiztu dute, eta, gainera, estaldurak egin dizkiote, besteak beste, Ardantzako geltokian eta Amaña-Ardantza tartean. Jarduera horietako bat Eibarko geltokitik Azitaingo geralekura doan tartea izan da, gaur egun bitan banatuta dagoena.

En el ámbito del municipio de Eibar se han venido desarrollando actuaciones que tienen como fin mejorar el servicio ferroviario, así como su integración urbana, para conseguirlo se ha duplicado la vía y además se han realizado cubriciones de la misma, tal y como se han realizado en la Estación de Ardantza y en el tramo Amaña-Ardantza. Dentro de estas actuaciones se encuentra el tramo que va desde la Estación de Eibar hasta el apeadero de Azitain, el cual se encuentra actualmente desdoblado.

2012ko irailean, Euskal Trenbide Sareak TYPESA ingeniaritza-enpresari eskatu zion idatz zezala Bilbo-Donostia tren-lineako Eibar-Azitain tartea estaltzeko Eraikuntza Proiektua.

En septiembre de 2012, Euskal Trenbide Sarea encargó a la ingeniería TYPESA la redacción del Proyecto Constructivo de cubrición del tramo Eibar - Azitain de la línea férrea Bilbao - Donostia.

2019ko maiatzean, ETSk FULCRUM ingeniaritza-enpresari eman zion Bilbo-Donostia tren-lineako Eibar-Azitain tartea estaltzeko Eraikuntza Proiektua gaurkotzeko ardura. Kontratuaren helburua da 2013an idatzitako eraikuntza proiektua egokitzea zati horretan, eta ondoren lizitazioa egitea trenak izan ditzakeen --talkak arintzeko horma bat barne--, obrak tren-zerbitzuarekin bateragarriak direla ziurtatzea eta trenbidearen gainetik Eibarko Eguski Begi eraikinera iristeko sarbideen proiektua integratzea.

En mayo de 2019, ETS encargó a la ingeniería FULCRUM la redacción de la actualización del Proyecto Constructivo de cubrición del tramo Eibar - Azitain de la línea férrea Bilbao - Donostia. El objeto del contrato consiste en adaptar el proyecto constructivo ya redactado en 2013 del mismo tramo para su posterior licitación incluyendo un muro para mitigar posibles impactos ferroviarios, asegurar la compatibilización de las obras con el servicio ferroviario e integrar el Proyecto de accesos sobre la vía del tren al edificio Eguski Begi de Eibar.

2021eko apirilean, , ETSk FULCRUM ingeniaritza-enpresari eskatu zion egokitzapen proiektua idatz zezan, Bilbo-Donostia tren linearen Eibar - Azitain tartea estaltzeko eraikuntza proiektuari dagokiona. Egokitzapen horretan, hasierako luzetarako pasabidea aldatu behar zen, trazatuaren zati batzuk inguruko eraikinetatik

En abril de 2021, ETS encargó a la ingeniería FULCRUM la redacción de la adecuación del Proyecto Constructivo de cubrición del tramo Eibar - Azitain de la línea férrea Bilbao - Donostia, modificando la pasarela longitudinal inicial, alejando ciertas partes del trazado de las edificaciones cercanas e integrando la ampliación de la pasarela transversal existente sobre la estación de Eibar.

Ebazpen honen bitartez onesten den proiektuaren helburua da Bilbo-Donostia trenbide-linean Eibar-Azitain tartea estaltzeko behar diren lanak egitea eraikuntza Proiektu mailan.

El objeto del Proyecto a aprobar mediante la presente Resolución es definir con el nivel propio de Proyecto Constructivo las obras necesarias para materializar la cubrición del tramo Eibar - Azitain de la línea férrea Bilbao - Donostia.

Trenbidearen estaldura eremua aztergai den Eibar eta Azitain arteko geltokiaren zatian osorik igarotzen da Eibarko udalerritik.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 15. zenbakian argitaratu zen Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Testu Bategina, 2008ko urtarrilaren 22an.

Proiektatzen den estalduraren bidez lortzen den espazio urbanoa bat dator Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Jarduketa Programan datozen helburu nagusiekin, hau da, lurzorua berritzeko politika bultzatzea eta espazio edo eraikin zaharrak birgaitzea; besteren artean, Matsariko eremu urbanoa, erabilera industrialerako.

Horretaz gain, HAPOn jasotzen den helburuetako bat da bidegorri zati bat egitea Tren Saihesbidearen harira libre geldituko den zoruan, eta pasealeku lineal bat sortzea, balioko duena zenbait auzo lotzeko Tren Saihesbidearen harira proiektatzen diren espazio libreekin; hartara, trenak hiri erdia zeharkatzeak sorrarazten duen barrera kenduko da.

Azkenik, orobat jasotzen dira oinezkoentzako pasalekuak sortzeko beharra geltokitik Asua Errekara eta Asua Errekatik Azitainera, besteak beste.

Proiektuaren helburua da Matsaria kalearen gaineko eta bi bideko plataforma elektrifikatukaren gaineko tarte bat estaltzea Eibarko tren-geltokiaren eta Azitaingo zonaren artean, izen bereko geltokia pasatuta; horri esker, oinezkoak konektatuta geldituko dira N-634 saihesbideko zubiarekin Azitain parean. Halaber, Eibarko geltokiaren gaineko zeharkako pasabidea handitzeko proiektua ere sartu da, igogailu bat barne. Hala, ibiltzeko espazioa eta bidegorria

El área de cubrición sobre el trazado ferroviario en el tramo entre la estación de Eibar y Azitain objeto de estudio, discurre íntegramente por el T.M. de Eibar.

El Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 15 de 22 de Enero de 2008.

El espacio urbano conseguido por medio de la cubrición proyectada es acorde con los objetivos principales incluidos en el Programa de Actuación del Plan General de Ordenación Urbana de Eibar, que es el impulsar una política de regeneración del suelo y rehabilitación de espacios o edificios obsoletos, entre los que se encuentra el área urbana de Matsaria para uso industrial.

Además uno de los objetivos recogidos en el PGOU está el habilitar un tramo de bidegorri el suelo liberado con motivo de la ejecución de la Variante Ferroviaria y la creación de un paseo lineal de carácter vertebrador que sirve de nexo de unión de los diferentes barrios y espacios libres proyectados con motivo de la ejecución de la Variante Ferroviaria, eliminando la barrera urbana en que se constituye la travesía del paso del ferrocarril por el centro de la ciudad.

Por último también se recoge la necesidad de creación de los paseos peatonales de estación a Asua Erreka y de Asua Erreka a Azitain entre otros.

El objetivo del proyecto es cubrir un tramo sobre la calle Matsaria y sobre la plataforma electrificada de doble vía entre la estación de ferrocarril de Eibar y la zona de Azitain tras pasar la estación del mismo nombre, de manera que se permita la conexión peatonal con el puente de la variante de la N-634 a su paso por Azitain. Se integra también el proyecto de ampliación de la pasarela transversal sobre la estación de Eibar incluyendo un ascensor. De esta manera se consigue ganar espacio de paseo y



irabaziko du Eibarrek, eta HAPOn jasota datozen helburuak beteko ditu.

Estaldura 145,17 metroko pasarela zati batekin hasiko da, zeina Eibarko tren-geltokiaren paralelo baitoa, gaur egungo Matsaria kalearen gainean. Ondoren, tarte batean, in situ dagoen 30,5 metroko horma baten gainean bermatzen da plataforma, eta azkenik, estaldurak 17,02 metroko tarte bat hartzen du, zeina egitura metaliko bat baita HEB profitez egina.

Jarraian, 940 bat metroko egitura metaliko bat dator, osorik doana bide bikoitzaren gainean N-634 saihebidetako sarreratik (Eztazinon) N-634ren bidegurutzeraino Azitaingo auzoan, Azitaingo geltokia bera pasatuta.

Proiektua egikaritzeko aurrekontua HAMAHIRU MILIOI ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMOKOA (13.788.252,91 €) da. Horrek esan nahi du lizitaziorako oinarritzko aurrekontua HOGEI MILIOI HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU MILA BERREHUN ETA HAMAZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMOKOA (20.354.218,95 €) dela, BEZ barne. Administrazioaren ezagutzarako aurrekontua, BEZ barne, HOGEI MILIOI LAUREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST EURO ETA LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMOKOA (20.499.655,95 €) da.

Obrak egiteko HOGEITA HAMAHIRU (33) hilabeteko epea aurreikusten da.

Euskal Trenbide Sareko (ETS) Zerbitzu Teknikoek egiaztatu dute proiektu honek bere xedeari erantzuten diola eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak eskatutako baldintzak betetzen dituela, kontrata bidez egikaritzeko behar diren alderdi nahikoak jasotzen baititu;

bidegorri a Eibar y se cumple con los objetivos establecidos en su PGOU.

La cubrición comienza con un tramo de pasarela de 145,17 metros de longitud paralela a la estación de ferrocarril de Eibar situada sobre la actual calle Matsaria. Posteriormente se pasa a un tramo de plataforma apoyada en un muro in situ de 30,5 metros de longitud y finalmente la cubrición pasa a un tramo de 17,02 metros con estructura metálica a base de perfiles HEB.

A continuación, se sigue con una estructura metálica de 940 metros aproximadamente, completamente sobre las doble vía entre el acceso de la variante N-634 en Eztazino hasta el cruce de la misma variante N-634 en el barrio de Azitain, una vez pasada la propia estación de Azitain.

El Proyecto tiene un presupuesto de ejecución material que asciende a TRECE MILLONES SETECIENTOS OCHENTA Y OCHO MIL DOSCIENTOS CINCUENTA Y DOS EUROS CON NOVENTA Y UN CENTIMOS (13.788.252,91€), que significa un presupuesto base de licitación con IVA de VEINTE MILLONES TRESCIENTOS CINCUENTA Y CUATRO MIL DOSCIENTOS DIECIOCHO EUROS CON NOVENTA Y CINCO CÉNTIMOS (20.354.218,95€). El presupuesto para el conocimiento de la Administración, IVA incluido, es de VEINTE MILLONES CUATROCIENTOS NOVENTA Y NUEVE MIL SEISCIENTOS CINCUENTA Y CINCO EUROS CON NOVENTA Y CINCO CÉNTIMOS (20.499.655,95 €).

El plazo de ejecución estimado para las obras es de TREINTA Y TRES (33) meses.

Los Servicios Técnicos de Euskal Trenbide Sarea (ETS) han verificado que este proyecto responde a su objeto y cumple los requisitos exigidos por la Ley de Contratos del Sector Público y por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, por cuanto recoge los aspectos suficientes y necesarios para su



halaber maila formalean berrikusi du proiektua eta berresten du bete egiten duela Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa, maila formalean, beharrezko dokumentuak eta indarrean dagoen araudia sartzeari dagokionez, edukiari, sinadurei eta alderdi formalei, beharrezko kalkulu-oinarri eta -hipotesiei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 233.1 artikuluan zerrendatutako edukiari dagokienez.

Organo honek eskumena du garraio azpiegitura sareko obren proiektuak onartzeko, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021ko urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita, hau

EBATZI DUT:

LEHENA: "Bilbo-Donostia lineako Eibar-Azitain tartea estaltzeko eraikuntza proiektua" onartzea. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, BEZ barne, HOGEI MILIOI HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU MILA BERREHUN ETA HAMAZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMOKOA (20.354.218,95 €) da, eta obrak egiteko epea HOGEITA HAMAHIRU (33) hilabetekoa izango dela aurreikusi da.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaioke Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Idazki hori organo honi edo Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari bidali beharko zaio.

ejecución por contrata; así mismo han revisado el proyecto a nivel formal y ratifica que cumple con lo estipulado en la Ley de Contratos del Sector Público y el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas en cuanto a la inclusión de los documentos necesarios y la normativa vigente en relación a su contenido, las firmas y aspectos formales, las bases e hipótesis de cálculo necesarias y el contenido relacionado en el artículo 233.1 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Este órgano es competente para la aprobación de los proyectos de obras de la red de infraestructuras del transporte, según lo dispuesto en el artículo 16.2 b) del Decreto 11/2021 de 19 de enero de 2021, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vistas las disposiciones citadas, y demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

PRIMERO: Aprobar el "Proyecto constructivo de cubrición del tramo Eibar-Azitain de la línea férrea Bilbao-Donostia" con un presupuesto base de licitación, IVA incluido, de VEINTE MILLONES TRESCIENTOS CINCUENTA Y CUATRO MIL DOSCIENTOS DIECIOCHO EUROS CON NOVENTA Y CINCO CÉNTIMOS (20.354.218,95 €), y con un plazo de ejecución estimado para las obras de TREINTA Y TRES (33) meses.

Esta resolución no es definitiva en vía administrativa y contra ella los interesados pueden interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Infraestructuras y Transportes, dentro del plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación o publicación, dirigiendo el escrito de interposición bien a este órgano, bien al Viceconsejero de Infraestructuras y Transportes.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien aretoan, hargatik aldeaz aurretik errekerimendua egitea eragotzi gabe, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Las Administraciones Públicas podrán interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos (2) meses, ante la sala de lo contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, sin perjuicio de poder efectuar requerimiento previo en la forma y plazo determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción contencioso-administrativa.

Jendaurrean jartzen da, guztiek horren berri izan dezaten.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 18an.

En Vitoria-Gasteiz a 18 de noviembre de 2021


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES
DOLORES DE JUAN DE MIGUEL
GARRAIO AZPIEGITUREN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE INFRAESTRUCTURAS DEL TRANSPORTE